[+]información Actividad usuarios




Versión móvil

Hemeroteca | Edición Impresa | RSS

HOY 15.1 / 21.8 | MAÑANA 14.2 / 21.6

diariovasco.tv Otra forma de ver TV

24 septiembre 2009

Clasificados 11870.com Vivienda Empleo Coches mujerhoy.com

Portada Gipuzkoa Deportes Economía Más Actualidad Gente y TV Ocio Participa Blogs Servicios

Buscar

Alto Urola Alto Deba Bajo Deba Bidasoa Comarca Costa Urola San Sebastián Pasaia -Errenteria Tolosa-Goierri

Estás en: diariovasco.com > Noticias Gipuzkoa > Noticias Pasaia Errenteria > Oiartzungo kirolariak Astigarragan arituko dira IX. Sagar Uzta festan parte hartzeko

OIARTZUN

# Oiartzungo kirolariak Astigarragan arituko dira IX. Sagar Uzta festan parte hartzeko

EGARRIZ | OIARTZUN.

0 votos

0 Comentarios | Comparte esta noticia »

**DV.** Datorren igandean, hilaren 27an, Astigarragan IX. Sagar Uzta festaren barruan, herrien arteko sagardogintzako herri kirolen lehiaketa egingo dute bigarren urtez. Lehiaketak hiru kirol-proba ditu: lehenengo, parte hartzen duen talde bakoitzak (hiru gizon eta emakume batek osatuta) sagar karga erdi bat (150 kilo) kizkiaz jaso beharko du. Saskietan bildutako sagarrak zakuetan sartuko dituzte eta aldamenean izango duten leraren gainean jarri beharko dituzte zakuak.


Saizar eta Alba (Herkuleseko atezaina) Joxemigel Lopezerekin.

Jarraian, sagar karga bat (300 kilo) leratik tiraka tolarera garraiatu beharko dute, hamar plazako luzera eginez. Azkenik, sagar karga erdi bat matxakara bota eta txikitu egin beharko dute taldekideek. Lehiaketarako zehaztutako arauen arabera denbora gutxienean lana ondoen betetzen duena izango da irabazle.

Iaz egindako lehen lehiaketan - hura ere Goldea, Herri Kirol Ba-tzordeak antolatu zuen-, lau taldek hartu zuten parte: Urnietak, Hernanik, Baserritar gazteek eta Astigarragak. Astigarragakoek lortu zuten txapela, kirol-proba guztiak 23 minututan gaindituz. Aurten, berriz, honako sei taldeetako kirolariek hartuko dute parte: Oiartzun, Orereta, Urnieta, Bentak, Bidasoa-Urumea eta Astigarraga. Lehiaketa hasteko hitzordua arratsaldeko 17:30ean dago jarrita, Joseba Barandiaran plazan.

### Gaizka Saizar

Aste honetan futbolean lehen mailako partiduak jokatuko dira eta jardunaldia aztertzeko Oiartzun Irratiak (FM. 107), gaur eguardiko 13:00etan, programa berezia eskainiko du eta gonbidatua Gaizka Saizar oiartzuarra (Tenerifeko jokalaria) izango da. Asteazkenean Athletiken aurka jokatuko dute eta denboraldia nola hasi duen galdetuko diote. Emai-tzen errepasoa ere egingo dute, Joxemigel Lopezeren eskutik.

### Ludoteka

Herriko gurasoei ikasturte honetan ludoteka zerbitzua izango dela jakinarazi nahi die Udalak. Abaraxka udal ludoteka zerbitzua urrian jarriko da martxan, Fermiñene eraikineko lanak buka-tzen direnean, bertan egongo baita. Aurreko urteetan Jolas Txokoan egin den modura, LH 1. eta 6. Maila bitarteko haurrei eskainiko zaie ludoteka zerbitzua.

Urrian ate irekietako egunak izango dira ludotekan, haurrek eta gurasoek toki berria eta zerbitzua ezagutzeko aukera izan dezaten.

Ate irekiak egiten diren egunetan, izena eman gabe parte hartu ahal izango dute haurrek ludotekako ekintza guztietan. Ludotekaren irekiera festa ere egingo dute.

Astelehenetik ostiralera eskainiko da ludoteka zerbitzua, 16:30etik 19:30era. Abaraxkako bazkide izateko bete beharko diren baldin-tzak hauek izango dira: oiartzuarra izatea edo Oiartzunen ikastea, Lehen Hezkuntzako ikaslea izatea eta orria egoki bete eta urteko kuota ordaintzea.

Ttiruki enpresak kudeatuko du ludoteka zerbitzua, haurren aisialdian esperientzia duten lagunek osatua.

Ludotekaz gain, Gazte Informazio Bulegoa eta uztaileko udaleku irekiak ere kudeatzen ditu Ttirukik. Laster Gazte Informazio Bulegoak ere kokaleku berria izango du, Mendiburu kalean.

### Jaiotza

Asteartean, Donostisako Ospitalean jaio ziren 15 haurren artean Araia San Roman Iraola oiartzuarra jaio zen. Zorionak.

Cuenta AZUL de iBanesto, alta remuneración con total disponibilidad




TAGS RELACIONADOS

oiartzungo, kirolariak, astigarragan, arituko, dira, sagar, uzta, festan, parte, hartzeko

0 votos

0 Comentarios | Comparte esta noticia »

diariovasco.tv

VIDEOS DE ACTUALIDAD más videos [+]



GIPUZKOA

Nueva línea de autobús Intxaurrondo-Hospitales-Altza

1 2



LO MÁS LEÍDO

Grúas Jaso plantea el recorte de 161 em...

Bienvenido a

[+] Opina Identidad usuarios Iniciar sesión Accede directamente si tienes cuenta en REGISTRO

Aprovecha las ventajas de ser un usuario registrado y **Regístrate** Para realizar un comentario con tu perfil, primero debes identificarte: **Login**. También puedes escribir un comentario sin tener perfil:

Nombre * y apellidos

Email *

Acepto todas las **condiciones de uso**
* campos obligatorios

Opinión *

escribe aquí tu comentario

Enviar

## Listado de Comentarios

**Lo más reciente** Lo más valorado

**0 opiniones**

ANUNCIOS GOOGLE

Opariak zuretako
Lagun eta familiakoentzat egokiena Prezio interesgarriak
merkatua.net

PSE-EE PSOE
Socialistas Vascos Euskal Socialistak
www.socialistasvascos.com

Curso Básico de Coaching
Bilbao 12, 13 y 14 de Noviembre Certificación Internacional - ICF
www.OlaCoach.com

Oposaketak 2009
2009ko oposaketa guztien doain informazioa eska ezazu
www.CanalOposiciones.com/Oposaketak

«Darko y Nihat no hubieran triunfado ho...
Tres de cada cuatro jóvenes de 15 a 19 ...
«Acerté 14 definiciones seguidas... y a...
Mikel Alonso sentenció al Athletic...
Johnatan o Griezmann, la duda...
PSE, PP y PNV pactan, tras años de divi...
El traspaso de Alkiza...
'El Follonero' intenta «fichar a doña L...
El lunes se pone en marcha la nueva lín...
Iván y su reto de volver a caminar...
Desolación entre los comerciantes...

LO MÁS COMENTADO
LO ÚLTIMO

Powered by SARENET

© Copyright DIARIOVASCO.COM DIGITAL VASCA, S.L.U.
Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 1.786, Folio 141, Sección 8ª, Hoja SS-16552, Inscripción 1ª C.I.F.: B20677878
Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018
Correo electrónico de contacto contactanos@diariovasco.com
Copyright © Digital Vasca S.L. , San Sebastián. , 2008. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.) , y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:
Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización, total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.

Contactar | Mapa Web | Aviso legal | Política de privacidad | Publicidad | Master El Correo

ENLACES VOCENTO

ABC.es
La Rioja.com
DiarioVasco.com
Ideal digital
Las Provincias
El Diario Montañés
Laverdad.es
Finanzas y planes de pensiones
Infoempleo
11870.com
El Correo Digital
nortecastilla.es
El Comercio digital.com
SUR digital
Qué.es
La Voz Digital
Punto Radio
hoyCinema
hoyMotor
Autocasion

Bienvenido a